



Ikasmina DoKS:

Gipuzkoan bizitza guztian zeharreko
ikasketari buruzko dokumentuak

Pertsonak eta ikaskuntza formala Gipuzkoan

96. dokumentua

2024ko urtarrila

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	3
1.1. Aurkezpena	3
2. Ikasten duten gipuzkoarrak.....	4
2.1. Ikasten duten pertsonak.....	4
3. Pertsonak eta ikaskuntza formala.....	6
3.1. Ikaskuntza formaleko parte-hartzea: generoa eta adina.....	6
3.2. Ikaskuntza formala: ikasketa maila eta lan-egoera.....	8
3.3. Ikaskuntza formalean parte hartzeko arrazoiak	10
3.4. Ikaskuntza formaleko ekintzen maiztasuna.....	14

1. Aurkezpena

1.1. Aurkezpena

Gipuzkoak ezagutza lehiakorrean eta dinamikoan oinarritutako ekonomia duen gizartea bihurtu nahi du. Horretarako, uste dugu bizitza oso ikaskuntza oso tresna garrantzitsua dela; izan ere, pertsonen eta gizartearen hazkunde pertsonala, profesionala eta soziala ahalbidetzen du.

Helburu horrekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak uste du ikaskuntza eta talentuaren garapena elementu estrategikoa dela aurrerapen eta kohesio sozialean. Bertan, pertsonak izango dira ardatz: sozialki jasangarria den garapen-eredua eraiki nahi duen Lurraldea, pertsonen talentua, erakundeen dinamismoa eta bultzada teknologikoa elkartuz.

Gero eta konplexuagoa, malguagoa den eta interkonektatuago dagoen gizartean, ikaskuntza-prozesuak oso garrantzitsuak dira; are gehiago, pertsonak bizitza osoan landu behar dituzte (pertsonala, zibikoa, soziala edo profesionala), eta horrela, beren ezagutzak, gaitasunak eta kualifikazioak mantendu, hobetu eta zabalduko dituzte.

Ikerketa-proiektu honek Gipuzkoako pertsona helduek (25 eta 74 urte artean) egindako ikaskuntza-jardueraren jarraipena lantzen du, urtero (urteko lehen hiruhilekoa) egindako kontsultaren emaitzen bitartez, eta 2023an egindako ikaskuntza-jarduerekin lotuta pertsonen gai garrantzitsuetan oinarritzen da.

Dokumentu honek ikasketa formaleko partaidetzarekin lotutako emaitzak erakusten ditu denbora-tarte zabala aintzat hartuta. Hala, pandemia aurretik (2018-2019ko batezbestekoa), pandemian zehar (2020-2021eko batezbestekoa) eta pandemia ostean (2022-2023) izandako bilakaera zein izan den ikus daiteke.

2. Ikasten duten gipuzkoarrak


2.1. Ikasten duten pertsonak

Gipuzkoako hamar heldutik lauk ikasten du

Gipuzkoako pertsona helduek (25-74 urte) bizitza osoko ikaskuntza-jardueretan duten parte-hartzeak erakusten duenez, hamar pertsonatik lau inguruk ikasten dute modu egonkorrean. Zehazki, erreferentziazko hiru alditan (pandemia aurrekoa, pandemia eta pandemia ostekoa) erregistratutako bilakaerak finkatu egin du ikaskuntzako parte-hartzea, baina adierazten du profilak behera egin duela apur bat¹ pandemian zehar (% 39,2) eta hala mantendu dela ondoren ere (% 38,7).

1. grafikoa. Ikaskuntza iraunkorra egiten duten pertsonak

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

¹ Beste faktore erabakigarri bat biztanleriaren zahartzea izan daiteke, seniorren taldearen pisu handiagoak ikaskuntza-tasa orokorra okertzen baitu (seniorrek gazteek baino ikaskuntza-tasa baxuagoa dute).

Bizitza osoko ikaskuntzaren barruan bi ikaskuntza mota daude (formala eta ez formala) eta emaitza orokorra ñabartzen dute. Hala:

- Ikasketa formala. Hezkuntza arloak (baimendutako pertsonak eta erakundeak) eskaintzen dituen eta sartzeko baldintzei eta curriculum-edukiei dagokienez araututa dauden ikasketa-jarduerei egiten die erreferentzia. Jarduera horien azken helburua titulazio ofiziala lortzea izaten da.


Emaitzen arabera, Gipuzkoako hamar heldutik batek hartzen du parte ikaskuntza-jarduera formaletan. Bilakaerari erreparatu gero, pandemiaren inpaktua agerikoa izan da (ehuneko -0,7 puntu), baina 2022-2023 aldian pandemia aurreko kopuruak berreskuratu dira (ehuneko +0,8 puntu).

- Ikasketa ez-formala. Edozein esparrutan (hezkuntza-erakunde, enpresa eta abar) bideratutako ikasketako jarduerak biltzen ditu; horien helburua ezarritako edukien programa jakinaren arabera ikasketako xede batzuk lortzea izango da, baina amaitzean titulu baten aitortpen ofiziala lortu gabe (dena den, ziurtagiri mota desberdinak jaso daitezke).

Zabalduen dagoen ikaskuntza da, Gipuzkoako biztanleria helduaren heren batek parte hartzen baitu bertan, baina, bilakaeraren arabera, beheranzko joera du (% 35,5etik % 31,2ra). Horrek ikaskuntzaren tasa orokorra baldintzatzen du. Izatez, modalitate formalaren bilakaera hobeari esker mantendu da bizitza osoko ikaskuntzaren parte-hartzea.

2. grafikoa Ikasten duten pertsonak, ikaskuntza motaren arabera

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoak (%)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

3. Pertsonak eta ikaskuntza formala

3.1. Ikaskuntza formaleko parte-hartzea: generoa eta adina


Emakumeek gizonek baino ikaskuntza formalaren tasa handiagoa dute (apur bat)

Erantsitako grafikoa ikaskuntza formalaren parte-hartze tasa erakusten du generoaren arabera, eta ikus daiteke emakumeek gizonek baino jarduera apur bat hobea dutela (% 11,0 eta % 9,9). Emaitza egonkorra da (aurretiazko kontsultekin alderatuta) eta bizitza osoko ikaskuntzako parte-hartzearen adierazle globalarekin parekatzen da.

Bi kolektiboek pandemia aurreko erregistroak hobetu dituzte, baina hazkundea apur bat handiagoa da emakumeen artean (% 9,9tik % 11,0ra, ehuneko +1,1 puntu) gizonen artean baino (% 9,5etik % 9,9ra, ehuneko +0,4 puntu). Emaitza horiek azaltzen dute Gipuzkoako helduen ikaskuntza formaleko parte-hartze tasa globalaren hobekuntza.

3. grafikoa Ikaskuntza formala egiten duten pertsonak, generoaren arabera

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoak (%)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua


Ikaskuntza formaleko parte-hartzea jaitsi egiten da adinak gora egin ahala

Ikaskuntza formalean dagoen parte-hartzea nabarmen jaisten da pertsonen adinarekin. Gazteek hein handiagoan gauzatzen dute ikaskuntza formala, hezkuntza arautuaren etapari lotuta (gradua-masterra, graduondokoa) eta lan-merkatuan sartzeko aukerak sustatzeari eta hobetzeari bideratuta. Hala:

- Lau gaztetik batek inguruk (25-34 urte) hartzen du parte ikaskuntza formaleko jardueretan (2022-2023ko batez bestekoa). Pandemia aurreko etapan erregistratutako ratioaren antzekoa da (% 26,5 eta % 28,0, hurrenez hurren).
- 35 eta 44 urte bitarteko pertsonen parte-hartzea erdira murrizten da (% 11,7), eta talderik gazteenaren emaitzarekiko dagoen "jauzia" berresten da. Hala ere, pandemia aurretik erregistratutako tasaren oso antzekoa da (% 12,0). Bestalde, 45-54 urte bitarteko taldeak nabarmen hobetu du parte-hartzea (% 7,6tik % 9,1era) eta 35-44 urte bitarteko taldearekiko duen arrakala laburtu du, bi puntuko aldearekin soilik.
- Ikaskuntza formalaren tasa txikiagoa da hurrengo adin-taldeetan eta beheranzko profila dagoela berretsi da: % 6,0koa da tasa 55-64 adineko taldearentzat eta % 1,1koa 65-74 urte bitartekoentzat.

4. grafikoa Ikaskuntza formala egiten duten pertsonak, adinaren arabera

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

3.2. Ikaskuntza formal: ikasketa maila eta lan-egoera


Ikaskuntza formalaren tasa handitu egiten da lortutako ikasketa mailarekin batera

Lortutako ikasketen maila² faktore erabakigarria da ikaskuntza formalaren parte-hartzean, kontuan hartuta parte-hartze hori handitu egiten dela pertsonen lortutako ikasketen mailarekin. Hala:

- Hirugarren mailako ikasketen taldean, ikaskuntza formaleko parte-hartzea % 15,5ekoa da. Ehuneko hori % 8,3ra murrizten da bigarren mailako ikasketak dituztenen artean eta % 3,7an geratzen da lehen mailako ikasketak dituztenen artean. Hala, gehien eta gutxien ikasten duten taldeen arteko desberdintasuna ehuneko hamar puntu baino handiagokoa da (ehuneko 11,8 puntu).
- Bestalde, bilakaerak erakusten du bigarren mailako ikasketak dituzten taldeak soilik gainditzen dituela pandemia aurreko erregistroak (ehuneko +2,7 puntu). Lehen mailako ikasketak dituen taldeak, aldiz, berdindu egiten du erregistro hori (% 3,7) eta apur bat baxuagoa da hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsonen artean (ehuneko -1,1 puntu).

5. grafikoa Ikasketa formal, ikasketa mailaren arabera

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

² Lortutako ikasketa maila erabakigarria da ikasten jarraitzeko eta, batez ere, ikasketa formalaren baitan ikasteko. Izan ere, hezkuntza-sistemek ezarritako eskakizunak eta zorrotasuna (tituluak izatea) direla eta, zailagoa da maila baxuagoa duten pertsonen sistema barruan jarraitzea eta/edo bigarren aukera bat izatea.




Langabezian dauden pertsonen handitu egin dute ikaskuntza formaleko parte-hartzea

Lan-merkatuarekiko harremanak hobetu egiten du ikaskuntza formaleko parte-hartzea, bereziki, enplegurako sarbidea izan nahi duten pertsonen artean. Hala:

- Ikaskuntza-tasarik handiena ikasleek (% 65,4) eta langabetuek dute (% 21,2), lan-merkatura (berriro) sartzeko tresna³ baita. Nabarmentzekoa da langabetuen ikaskuntza-tasan (formala) erregistratutako igoera; izan ere, pandemian hobera egin zuen (% 15,9tik % 17,3ra) eta azken bi urtekoan indartu egin da (% 21,2).
- Halaber, ordaindutako lana duten pertsonen ikaskuntza-tasaren batezbestekoa gainditzen dute (% 11,6 eta % 10,5, hurrenez guren) eta pandemia aurreko erregistroekin alderatuta hobekuntza izan da (ehuneko +1,4 puntu).
- Argi eta garbi, ikaskuntza-tasarik txikiena erretiratuek dute (% 2,3), eta agerian geratzen da ikaskuntzako parte-hartzea eta lan-merkatua lotuta daudela.

6. grafikoa Ikasketa formala, laneko egoeraren arabera

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)



"Beste egoera batzuk" atalak erreferentzia egiten die erretiratuei. Kontuan hartutako aldi bakoitzerako ikasleen emaitzak % 79,9, % 50,0 eta % 65,4koak dira, hurrenez hurren.

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

³ Eskuratutako ezagutzak titulu ofizial baten bidez egiaztatzea.

3.3. Ikaskuntza formalean parte hartzeko arrazoiak

Motibazio profesionalak ikaskuntza formala sustatzen du

Ikaskuntza formaleko jardueretan parte hartzeko motibazioari buruzko emaitzek indartu egiten dute ikaskuntza eta enplegua lotzen dituen aipatutako ideia. Hala:

- Modu formalean ikasteko arrazoi nagusia arlo profesionalarekin lotuta dago, aukera hori adierazi baitute ikaskuntza formalean parte hartzen duten hamarretik ia seik (% 58,3). Gainera, motibazio horren garrantzia indartu egin da pandemia aurreko aldiarekin alderatuta (ehuneko +3,0 puntu).
- Emaitza hori arrazoi pertsonalak adierazi dituzten pertsonen taldearekin osatzen da (guztizkoaren % 41,7). Talde horren erregistrorik handiena pandemiaren bi urtekoan izan zen (% 47,9), eta ehuneko hori murriztu egin da dagoeneko arrazoi profesionalen alde.

Emakumeek eta gizonak partekatzen duten emaitza da, eta bi kolektiboetan arrazoi profesionala da ikaskuntza-modalitate nagusia. Hala ere, pisu apur bat handiagoa du emakumeen kolektiboaren barruan (% 60,6 eta % 56,5). Gainera, bi taldeen artean, indartu egin da arrazoi profesionalak duen garrantzia pandemia aurreko etaparekin alderatuta (ehuneko +4,2 puntu eta ehuneko +1,5 puntu, hurrenez hurren), arrazoi pertsonalaren kalterako.

1. taula Ikasketa formalerako motibazioa, generoaren arabera

Ikasketa formalean parte hartu duten 25 eta 74 urte arteko biztanleen ehunekoa (%)

	Arrazoi profesionalak	Arrazoi pertsonalak
GUZTIRA		
2018-2019ko batezbestekoa	55,3	44,7
2020-2021eko batezbestekoa	52,1	47,9
2022-2023ko batezbestekoa	58,3	41,7
Emakumeak		
2018-2019ko batezbestekoa	56,4	43,6
2020-2021eko batezbestekoa	56,7	43,3
2022-2023ko batezbestekoa	60,6	39,4
Gizonak		
2018-2019ko batezbestekoa	55,0	45,0
2020-2021eko batezbestekoa	45,6	54,4
2022-2023ko batezbestekoa	56,5	43,5

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

Bestalde, parte-hartzaileen adinak eragina du ikasketa formala egiteko arrazoietan. Zehazki:

- Lan egiteko adinean dauden taldeen barruan (25-64 urte), motibazio profesionala da nagusi: 35-44 urte bitarteko taldean du pisurik handiena (% 62,6), ondoren talderik gazteenean (% 58,7) eta, azkenik, 45-64 urteko taldean (% 55,5).
Eguneratutako emaitzek (2022-2023) berresten dute motibazio profesionala garrantzitsua dela kolektibo horrentzat: handitu egin da arrazoi horren aipamena 35-44 urte bitarteko taldean (ehuneko +10,9 puntu) eta 45-64 urteko taldean (ehuneko +13,0 puntu), eta apur bat murriztu 25-34 urteko taldean (ehuneko -5,7 puntu), pandemia aurreko emaitzekin alderatuta.
- Bestalde, talde seniorrak (65-74 urte) arrazoi pertsonalengatik soilik ikasten du (% 100) eta profil egonkorra mantendu du denboran zehar, ikaskuntza (kasu honetan formala) zahartze aktiboarekin lotuz.

2. taula Ikasketa formalerako arrazoiak, adinaren arabera

Ikasketa formalean parte hartu duten 25 eta 74 urte arteko biztanleen ehunekoa (%)

	Arrazoi profesionalak	Arrazoi pertsonalak
25-34 urte		
2018-2019ko batezbestekoa	64,4	35,6
2020-2021eko batezbestekoa	48,5	51,5
2022-2023ko batezbestekoa	58,7	41,3
35-44 urte		
2018-2019ko batezbestekoa	51,7	48,3
2020-2021eko batezbestekoa	67,5	32,5
2022-2023ko batezbestekoa	62,6	37,4
45-64 urte		
2018-2019ko batezbestekoa	42,5	57,5
2020-2021eko batezbestekoa	43,3	56,7
2022-2023ko batezbestekoa	55,5	44,5
65-74 urte		
2018-2019ko batezbestekoa	0,0	100,0
2020-2021eko batezbestekoa	0,0	100,0
2022-2023ko batezbestekoa	0,0	100,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

Ziurtagiri bat lortzea eta perspektiba profesionalak hobetzea

Ikaskuntza formaleko jarduerak egiteko arrazoi espezifikoek erakusten dute helburu nagusia ziurtagiri bat lortzea dela (% 82,3), baita lana hobeto egitea eta/edo perspektiba profesionalak hobetzea ere (% 73,6). Halaber, bi pertsonatik batek adierazi du enplegu bat lortzeko aukerak hobetzeko ikasi duela (% 55,8). Oro har, lanaren jarduerarekin, ibilbide profesionalarekin eta enplegagarritasunarekin zuzenean lotutako motibazioak dira.

Arrazoi pertsonalen blokean, interesekoa den arlo bateko ezagutzak edo teknikak (% 86,2) edo eguneroko bizitzarako erabilgarriak direnak (% 68,4) eskuratzea da nagusi. Gainera, jendea ezagutzeko edo dibertsioagatik ikasteko arrazoiak ere garrantzi nabarmena du, lau pertsonatik batek adierazi baitu (% 23,6).

Oro har, ez dago aldaketa esanguratsurik kontuan hartutako item bakoitzaren garrantziaren mailan, eta arrazoi nagusi gisa indartu dira titulu bat lortzea eta perspektiba profesionalak hobetzea.

3. taula Ikasketa formalerako arrazoi espezifikoak

Ikasketa formalean parte hartu duten 25 eta 74 urte arteko biztanleen ehunekoa (%)

	2018-2019 batezb.	2020-2021 batezb.	2022-2023 batezb.
Arrazoi profesionalak			
Ziurtagiria lortzea	76,3	79,8	82,3
Nire lana hobeto egiteko eta/edo nire aurreikuspen profesionalak hobetzeko	75,6	68,9	73,6
Lana lortzeko ditudan aukerak areagotzea	59,7	50,9	55,8
Lana/lanbidea aldatzeko ditudan aukerak areagotzeko	48,2	42,7	37,6
Enpresaz aldatzeko ditudan aukerak areagotzeko	42,0	42,0	31,8
Nire negozioa sortzeko	12,1	12,1	9,5
Arrazoi pertsonalak			
Interesgarria iruditzen zaidan arlo batean ezagutzak edo teknikak lortzeko	86,0	79,4	86,2
Nire egunerokorako erabilgarriak diren ezagutzak edo teknikak lortzeko	68,8	61,9	68,4
Jendea ezagutzeko/dibertsioagatik	40,0	29,8	23,6

Hainbat erantzun

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

Halaber, kolektibo femeninoak eta maskulinoak ikaskuntza formalean parte hartzeko motibazioen rankinga partekatzen dute, eta titulu bat lortzea (% 83,8 eta % 81,4) eta laneko perspektibak hobetzea dira nagusi (% 74,1 eta % 73,5). Bi kolektiboen arteko

arrakalarik handiena lanez edo lanbidez aldatzeko aukerari lotutako motibazioan (ehuneko 19,7 puntu) eta lan bat lortzeko aukerak handitzeko motibazioan (ehuneko 13,5 puntu) daude, eta erantzuna handiagoa da kolektibo maskulinoan.

Arrazoi pertsonalei dagokienez, emakumeen eta gizonen kasuan nabarmentzen direnak dira intereseko arlo bateko (% 88,3 eta % 83,4) edo eguneroko bizitarako ezagutzak edo teknika erabilgarriak eskuratzea (% 73,7 eta % 63,5).

4. taula Ikasketa formalerako arrazoi espezifikoak, generoaren arabera

Ikasketa formalean parte hartu duten 25 eta 74 urte arteko biztanleen ehunekoa (%)

	2018-2019 batezb.	2020-2021 batezb.	2022-2023 batezb.
Emakumeak			
Arrazoi profesionalak			
Ziurtagiria lortzea	73,9	81,0	83,8
Nire lana hobeto egiteko eta/edo nire aurreikuspen profesionalak hobetzeko	75,1	73,2	74,1
Lana lortzeko ditudan aukerak areagotzea	56,5	52,8	49,9
Lana/lanbidea aldatzeko ditudan aukerak areagotzeko	41,5	40,0	28,9
Enpresaz aldatzeko ditudan aukerak areagotzeko	36,3	43,6	26,4
Nire negozioa sortzeko	9,3	9,3	10,7
Arrazoi pertsonalak			
Interesgarria iruditzen zaidan arlo batean ezagutzak edo teknikak lortzeko	81,3	81,4	88,3
Nire egunerokorako erabilgarriak diren ezagutzak edo teknikak lortzeko	61,3	62,5	73,7
Jendea ezagutzeko/dibertsioagatik	40,2	29,6	27,1
Gizonak			
Arrazoi profesionalak			
Ziurtagiria lortzea	79,2	78,3	81,4
Nire lana hobeto egiteko eta/edo nire aurreikuspen profesionalak hobetzeko	76,3	62,6	73,5
Lana lortzeko ditudan aukerak areagotzea	63,7	48,3	63,4
Lana/lanbidea aldatzeko ditudan aukerak areagotzeko	56,2	46,5	48,6
Enpresaz aldatzeko ditudan aukerak areagotzeko	48,3	39,7	39,2
Nire negozioa sortzeko	15,8	15,8	8,1
Arrazoi pertsonalak			
Interesgarria iruditzen zaidan arlo batean ezagutzak edo teknikak lortzeko	90,9	76,4	83,4
Nire egunerokorako erabilgarriak diren ezagutzak edo teknikak lortzeko	76,9	60,8	63,5
Jendea ezagutzeko/dibertsioagatik	40,4	30,0	20,5

Hainbat erantzun

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

3.4. Ikaskuntza formaleko ekintzen maiztasuna

Ikasketa formaleko partaidetza jarraitua % 5,2koa da

Erantsitako koadroak ikaskuntza formaleko parte-hartzea jasotzen du, bi aldi kontuan hartuta: alde batetik, kontsulta egin aurreko hamabi hilabeteetan egindako ikaskuntza -egindako azterketan zehar kontuan hartu dena da-; eta, bestetik, kontsulta egin aurreko lau astetan egindako ikaskuntza -etengabeko ikaskuntza deiturikoa-.

Hala, Gipuzkoako biztanleria helduaren % 5,2k etengabeko ikaskuntza formaleko jardueretan hartu du parte, eta pandemiaren biurtekoaren emaitza hobetu egin da (% 4,7), baina ez da pandemia aurreko erregistrora heldu oraindik (% 6,2). Aztertutako aldi guztietan, emakumeek etengabeko ikaskuntza formalean izan duten parte-hartzea gizonena baino apur bat altuagoa izan da (% 5,7 eta % 4,7 batez beste 2022-2023 aldian). Hala, azken hamabi hilabeteetako ikaskuntzan ikusitako emaitza berresten da.

5. taula Ikasketa formaleko maiztasuna, generoaren arabera

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)

	2018-2019 batezb.	2020-2021 batezb.	2022-2023 batezb.
Azken 12 hilabeteak			
Guztira	9,7	9,0	10,5
Gizonak	9,5	7,5	9,9
Emakumeak	9,9	10,6	11,0
Azken 4 asteak			
Guztira	6,2	4,7	5,2
Gizonak	6,0	3,5	4,7
Emakumeak	6,4	6,0	5,7

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua

Adin-taldean arabera egindako azterketa honek berberak erakusten du ikaskuntza formaleko etengabeko parte-hartzearen emaitzarik onenak 25-34 urteko taldean daudela (% 14,2), eta, aldiz, parte-hartzea hutsala da 65-74 urtekoen taldean (% 0,0). Emaitza egonkorra da eta berresten du ikaskuntzako parte-hartzeak behera egiten duela nabarmen adinarekin, erreferentziazko aldia azken hamabi hilabeteak edo azken lau asteak izanda ere.


6. taula Ikasketa formaleko maiztasuna, adin-taldean arabera

25 eta 74 urte arteko biztanleriaren ehunekoa (%)

	2018-2019 batezb.	2020-2021 batezb.	2022-2023 batezb.
Azken 12 hilabeteak			
25-34 urte	28,0	24,5	26,5
35-44 urte	12,0	10,0	11,7
45-64 urte	6,1	5,4	7,5
65-74 urte	1,1	1,5	1,1
Azken 4 asteak			
25-34 urte	19,5	16,9	14,2
35-44 urte	6,5	4,3	5,4
45-64 urte	3,2	2,1	3,8
65-74 urte	0,8	0,4	0,0

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia. Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua



Izenburua:	Pertsonak eta ikaskuntza formala Gipuzkoan 96. dokumentua, 2024ko urtarrila
Koordinazioa eta gainbegiraketa:	Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua Gipuzkoako Foru Aldundia 
Egilea:	IKEI, research & consultancy S.A.
Landa-lana:	Datakey, S.A.

